

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Spyclists, 1937ko nazien tourra

Arrastoak

Katyneko dokumentuak agerian

WWW.THELOCAL.DE



Ezkerrean, hitleriar gazteriaren afixa. Goian, 1937ko udan Ingalaterrara bizikletan ibiltzera eta informazioa biltzera joandako gazte nazietako batzuk.

hasi zen. Guztira hogeiki kideko zazpi talde identifikatu zituen zerbitzu sekretuak. Baina handik urte gutxira gerra piztuko zela susmatzen ez zuten, segimendua ez zen sakonegia izan.

Datu geografikoak biltzeaz gain, hitleriar gazteek bertakoen joera politikoei buruzko informazioa bildu eta "lagunak" egiteko agindua ere bazuten. *The Birmingham Post* egunkariak zioen, Tamswoertheke biztanleek iritzi ona zuten "gazte alemaniarrei eta beren jokamolde egokiei buruz".

Beraz, lagunak egitea lortu zuten, boy scouten artean bereziki. Uda amaituta, urte bereko azaroan, scout mugimenduaren sortzaile Robert Baden Powell bera hitleriar gazteen buruzagi Lauterbach Hartman-ekin eta Joachim von Ribbentrop kanpo ministro naziarekin bildu zen Londresen. Alemaniarrek liluratuta –Ribbentrop "xarmagarria" zela adierazi zuten–, Baden Powell prest agertu zen gazte ingeles eta alemaniarren arteko harremanak sustatzeko, eta Hitlerrekin elkarrizketa bat izateko proposamena onartu zuen.

Britainiar Gobernuak bileraren berri izan zuenean, kanpo ministro Lord Cranbourne errotik etenarazi zituen scouten eta hitleriarren arteko harremanak. Eta txirrindulari naziek ez zuten beste itzulirik egin Britainiar Uharteetan.

BRITAINA HANDIA, 1937KO UDA. Dozenaka hitleriar gazte iritsi ziren, hogeiki taldeetan banatuta, oporrak batetik bestera bizikletan pasatzeko. Cambridgen, Oxforden, Londresen eta beste hainbat gune historikotan izan ziren eta Eskozia zein Galesen ere ibilaldiak egin zituzten.


Baina zenbaitek susmatzen zuen nerabe naziek, turismoaz eta kirolaz gain, beste asmo batzuk zituztela. Urte bereko martxoan *Daily Herald* egunkariak Txirrindulari Nazien Elkarteko panfleto bat eskuratu zuen. Esku-orriak honelaxe zioen: "Memoriza itzazue puntu historikoak, hala nola kanpandorreak, dorreak eta zubiak, gauez aurkitzeko moduan". Informazio topografiko baliotsua lor zezaketen, horretarako baliabide teknikoak mugatuak ziren garaian. Egunkariak *Nazis must be spyclists* (naziek txirrindulari-espioiak izan behar dute) izenburuko artikulu baten bidez salatu zuten bisitaldi turistikoa berezia.

MI5 britainiar espioitza zerbitzua alemaniar txirrindulari taldeen atzetik

1940ko martxoan, SESBk Polonia inbaditu eta gero, Stalinekin 15.000-25.000 preso poloniar exekutatzeko agindua eman zuen. Ondorengo hilabeteetan horietako batzuk Smolensk-eko NKVD presondegian hil zituzten, baina gehienek Katyn inguruko basoetan jaso zuten tiroa buruan. SESBk sarraskia burutu zuela ukatu zuen, 1989an erantzukizuna onartu zuen arte.

Iaz *Katyn* izenburuko filma (azpian, filmaren kartela) estreinatu zen gertaera gogorazteko eta pasa den apirilaren 10ean gaia komunikabideetara itzuli zen, Poloniako presidentea Lech Kaczyński, sarraskiaren 70. urteurreneko ekitaldiertara bidean, hegazkin istripuan hil zenean.

Orain errusiar agintariak gertakariari buruzko dokumentuak desklassifikatu eta argitara eman dituzte (<http://rusarchives.ru/publication/katyn/spisok.shtml>).



WWW.WORDPRESS.COM